

# **ALGUNOS RECUERDOS PERSONALES**

MARIA AZPIAZU ZULAICA  
Vda. de RICARDO LEIZAOLA

Nik zer esan nezake Aita Donostiaz? Bestek esan ez duen gauza handirik ez noski.

Baina eskatu didatenez gero, aleginduko naiz zertxo bat emen idaztera.

Gaur esan didate, larogeitamar bat urte izango dirala, Aita Donostik bere gurasoen etxetik alde egin zuela, komentura joan eta praille izateko asmoarekin.

Bere gurasoen etxe hori, neretzat txikitandik etxe maitea izan zen; han bizi bait ziran nere osaba-izebak eta lengusu andana bat. Denetan txikiena, gazteena, ni nintzan.

Beraz, horrekin esana dago, neretzat Pepe, senditar-tean izen honekin ezagutzen bait genuen Aita Donosti, urruti zegoen praille haundi bat zan.

Beste edozeini bezala, neri ere urteak joan zitzaizkidan eta ikasi nuen Pepe gertuxeagatik ikusten. Gero eta gehiago musika zala bide batez ere.

Berak gure euskal abestiak biltzen zituen, eta neri abesti horiek sakon hitz egiten zidaten bihotzera. Oroitzen naiz nexka koxkorra nintzala nola galdegin nion (ximpleki noski): «Nola jartzen ahal duzu paperean jende abesten dutena?» Hauxe bere erantzuna: «Oso erraz, entzuten jakitea aski da». Neretzako ordea hori lan izugarria zan.

Handik urte batzutara, berak egindako «Preludios Vascos» zenbat maite nituan, esan nion. Eta umore onean erantzun zidan: «Hariek gazte denborako pekatuak dira». Dana dala, gaurko egunean, Preludio horiek entzuten ditudan bakoitzean bihotzean atximur egiten didate.

Aita Donosti begitarte alaieko gizona zen, goxoa, jende askoren adiskide estimatua.

Urte askoren buruan, Iparralden, Ustaritzen elkar ikusi genuen. Berak ere urteetan aurrera joanagatik, ez zuen batere zahar itxurarik oraino hartu.

Eta hizketan, hizketan hau esan zidan: «Osasun ona izanez gero, zahartzarua gizonaren adinik hoberena da». Ez zuen zahartzarua luzea izan, berak maite zuen osasun on horrek alde egin bait zion.

Fiña zan Aita Donosti. Erderazko hitz batekin esateko, poeta osoa zan; nahiz eta beharbada ez zuen bere bizi guztian poesia bat ere idatziko. Baina bazekien gauza orotan alderdi ederra aurkitzen. Soinuan, abestietan, irakurgaietan, eta nola ez, Jaungoikoak guretzat egindako hainbeste gauzetan. Nun ez zuen ba berak ederra aurkituko, poeta hutsa zen eta?!

Gogotik irakurri ditut oraintsu argitaratutako bere Obratan, «El Dia», Donostiako egunkarian mila bederatzirehun eta hogeitamaseigarren urteko lehenengo hilabetetan idatzi zituen artikulo txikiak. Mota desberdinekoak, tema asko ikutzen zituen, baino beti goxoki, tximeleta arin baten gisan.

Bukatzeko, hauek ditut azken aldiko oroimenak. Aita Donosti nere anai batekin molla ganean zutik, eta ni nere hurrekin ontzitik agurka....

Ez daukat ahaztuta, orduan ere Aita Donostik agur goxoa egin zigun.

Poco puedo yo añadir a lo mucho, y bien dicho, acerca del P. Donosti. Trataré de anotar aquí algunos recuerdos personales.

Me he enterado de que hace noventa años aproximadamente que Aita Donosti salió de su hogar para hacerse fraile Capuchino. Ese hogar suyo muy querido para mí. Allí vivían mis tíos con mis numerosos primos. Pero Pepe, como le nombrábamos en familia, era de la cabeza de la fila y yo la más pequeña de todos los primos. De ahí que yo veía a Pepe como un fraile lejano y respetable.

Los años corrieron también para mí, y fui aprendiendo a verle de otra manera. A causa de la música sobre todo. Las melodías vascas que el recogía me llegaban al alma. Siendo yo niña, le decía mi admiración por su trabajo de anotar las melodías que oía y el trataba de demostrarme lo fácil que eso era.

Más adelante, le dije un día cuanto me gustaban sus Preludios Vascos, y sonriendo me contestó que eso fueron «pecados de juventud». Su observación no fue obstáculo para que me siguieran encantando.

Al P. Donosti lo conocí siempre de talante agradable. Era muy amigo de sus muchos amigos, y ellos le correspondían de la misma manera. Nos volvimos a ver, al cabo de muchos años en Iparralde, Ustaritz. Todavía la edad no había hecho mella en él. Conversando de tantas cosas, me dijo: «Siempre que la salud continúe siendo buena, la mejor edad del hombre es la vejez», pero la suya no fue larga. Le falló esa salud que apreciaba tanto.

A mi entender, el P. Donosti fue un poeta de cuerpo entero, aunque quizá no haya escrito nunca una poesía. El veía y sentía la belleza intensamente allá donde Dios la ha derramado a manos llenas.

En el tomo tercero de sus Obras recientemente editadas he leído cantidad de pequeños artículos suyos. Abarcaba en ellos temas dispares, tratados siempre con su finura habitual.

Mis últimos recuerdos suyos: el P. Donosti, junto con un hermano mío, de pie en el muelle, y yo con mis hijos despidiéndolos desde el barco. No lo he olvidado. Aquella despedida cariñosa nos acompañó en la travesía.

There is not much I can add to all that has been said about Father Donostia. I will try to express here some personal memories.

I have learned that approximately ninety years ago «Aita» Donostia left his home to become a Capuchin monk. That home of his was a very dear home to myself. There lived my aunt and uncle with mu numerous cousins. Bu Pepe, the way we called his home, was head in line and I, the youngest cousin; there fore I saw Pepe as a distant and respectable monk. Years went by for me as well and I satarted knowing him in a different way. Specially because of music. The Basque melodies he collected really touched my soul.

I being a girll used to tell him the admiration I felt towards his work of collecting melodies he heard, and he tried to show me how easy it was.

Later on, I told him I liked his «Basque Preludes», and smilingly he said those were ‘youth sins’. This observation of his was not an obstacle forme to keep loving them.

I always knew Father Donostia with a nice character. He was very friendly with his many friends, and his friends treated him the same way.

We saw each other in the Northern Basque Country, Ustaritz, once. Age had not touched him. Chatting about many things he told me: «as long as health keeps being good, the third age is the best age». But his was not long. That health he beloved failed him.

To my understanding Father Donosti was a full bodied poet, even though he might have not written a poem. He could see and intensely feel beautiness wherever gods’ hand puts it.

In the third volume of his works, recently published I have read many short articles of his. He writes about many things, but always doing it with his habitual fineness.

My last memory of his is: «Aita» Donosti with a brother of mine, standing in San Sebastian’s pier saying goodbye to me and my children, we were leaving in a boat to exile.

I have not forgotten it. That lovely goodbye accompanied us in our pasage.